



**Itxaso
Paia
Ruiz**



BEGI UMELAK



Doinua:

Begi umelak

Kopla edo lauko berezia

Neska edo mutil jaio, ez da gauza bera gure gizartean.
Neskei eta mutilei gauza batzuk onartzen zaizkie eta beste batzuk debekatu.

"Futbolean hasi nahi dut
apuntatu nazazu **ama!**"
esanez, erantzun zidan:
"zer diozu ene **lartzana?**"

Balleten eman dut zure
izena neska **zarela**
futbola gogorra da-ta
zure moduko **neskentzako**".

Gaur parranda egingo dut
berandu helduko naiz **etxera**
"norekin jaitsiko zara?
Nork lagunduko dizu **atera?**".

"Ama, hamasei urte ditut
ez daukat inoren **beldurrik**"
"baina ni ez naiz fidatzen
polit jantzi zara **alferrik**".

Bertso-eskolan hasi nintzen
badaramatzat hiru **urte**
ta gaurko txapelketara
takoiekin joan nahiko **nuke**.

"Baina horrela mutilek
bertsoz barre egingo **dizute**
mendiko botak jantzita
bakean utziko **zaituzte**".

Ingeniaritza ikasketak
edo bestela **ekonomia**
unibertsitatea hain da
pertsonala eta **handia**.

"Turismo edo bestela
kazetaritza har **itzazu**
aurpegi eder horrekin
lana errez aurkituko **duzu**".

Beti esaten digute
nola erantzun, zenbat hitz **egin**
hankak nola gurutzatu
ta ez makillatzeko **gehiagi**.

Ni behintzat nazkatu naiz ta
naizena izango naiz ta **punto**
begiak itxi ditzala
horrela ez nauenak **gustuko**.

Begi umelen **sekretoak**
gordetzen dituen **ispiluak**
sorginen oihuz urrunera **begira**
kristal hautsiak izango **dira**.